

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

2019ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuraren erabakiaren laburpena. Homologaturik dauden esukaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2019. urteko dirulaguntza deialdiaren oinarri espezifikoak DDBN (identif.): 453481.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, deialdiaren laburpena argitaratu da. Honen testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. — Onuradunak

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleak.

Bigarrena. — Xedea

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntza.

Hirugarrena. — Arautzeko oinarriak

Udalaren webgunean, gardentasunaren atalean <http://www.bermeo.eus>

Laugarrena. — Zenbatekoa

6.000 euro.

Bosgarrena. — Eskariak aurkezteko epea

2019ko urriaren 1etik 31ra.

Bermeon, 2019ko maiatzaren 6an. — Alkatea, Idurre Bideguren Gabantxo